

T. HERNANDORENA (1898-1994)

Aspalditik Donibane-Lohizuneko ospitale batean zegoen Teodoro Hernandorena azaroaren 9an zendu zen 96 urterekin. Handik bi egunetara ospatu ziren bere hiletak Hondarribiko eliza nagusian, hiri honetan bizi baitzen bere azken urteetan. Zizurkilen jaioa zen 1898. urteko azaroaren 6an. Esaten denez, Godofredo jarri zioten izentzat, eta gogoko ez zuenez, Teodoro hartzera jo zuen.

Zaragozan egin zituen medikuntza ikasketak eta Billabonan mediku izan ondorean Madrilen bi urtez aritu zen odontologo espezialitatea egiten. 1933an Donostian kokatzeko. Euskaltzale bikain horrek ordutik hartu zuen jarrera eta burutu zituen ekintzen berri eman nuen *Egan* aldizkarian. Ikus 1985. urteko 5-6. zenbakiaren 47-49. orrialdeak.

Erbesteraturik agertu zenean ere, larrialdi guztiak gaindituz, euskaraz hezi zituen seme-alaba guztiak, aldi berean euskaltzaletasuna txertatuz. Esker gaitza bere jarrera zintzoa.

1934an ospatu zen Aberri Egunaren eraginez Euskal Herriari buruzko erreportaia filmatu zuela aipatzen nuen. Nik orduan *Egamen* eman nituen baino xehetasun gehiago agertu zuen Santos Zuzunegik prestatu zuen liburu hartan: *Euzkadi: un film de Teodoro Hernandorena, 1933-1983*. "Certamen Internacional de Cine Documental y de Cortometraje de Bilbao" deritzan jaialdian aurkeztua, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean argitaraturik. Hirurogei orrialdeko liburuxka haren asmo, eragin eta burutzea abertzaletasunaren zabalkundezkoa zen.

Ez zen euskaraz asko idatzi zuen horietakoa, ez; baina bai euskaltzale suharra eta, batez ere, ekintza gizona. *Herrian* hasi zen euskaraz idazten eta ondotik *Zeruko Argia*, *El Bidasoa*, *Anaitasuna* eta *Príncipe de Vianam*, euskarazko orriari. Hain zuzen, azken aldizkari honetan eztabaida bizia sortu genuen elkarren artean euskararen bizitza aburu. Baina, egia esan, elkarren lagun minak izan gara 1957an elkar ezagutu genuenetik, eta elkar laguntzarik ere izan genuen euskaltzaletasuna suspertzen. Besteak beste, berari zor zaió gerraondoko bertsolari txapelketen pizkundea, batez ere 1958an Basarri, Xalbador, Uztapide eta Mattin bertsolariekin baliatuz Parisen agertu zuen saiakera hari esker, eman zion publizitate oihartzunaren eraginez. Frantziako telebistan agertzea lortu baitzuen. Bertsolariak ez ezik, euskarak berak ere 1958. urte hartan izan zuen telebistara lehen sarrera. Haren eragina ikusirik hasi ginen mugaz honaindian bertsolari txapelketak antolatzen.



T. Hernandorena, apunte de
A. Valverde

Parisko saio haren grabaketa ere egin omen zuen, baina galdutzat geneukan eta horra hor, Zaitegi zenaren paperak eta liburutegia Baionatik Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekara ekartzean non azaldu zitzaigun zintatik egindako transkribaketa baten kopia. Lan horretan zerikusirik izan zuen gure P. Charritonek, aurkezpenetan ageri denez, bere ahoz hainbeste aldiz Dr. Hernandorenaren aipamenak lekuko. Transkribaketaren arabera "Paris'en izan zen Bertsolari-saiaketaren azalpena, 1958", Zaitegik berak eman zion izenburuaz argitaratu nuen *Eganen* 5-6. zenb., 1985, 21-46. orrietan, bersolaritzaren historian ahantzi ezinezko lana bete baitzuen Hernandorena zenak. Duela urte guti bertsolariek eskaini zioten omenaldia ondo merezia zuen Hernandorena gizon kementsu eta euskaltzale eredugarriak. (G.B.).

J. S. M.